

TXIRRINDULARITZA · 2007KO FRAntziako TOURra

Itxaropentsu, hala ere



analisia

XABIER USABIAGA

Pena ematen dit, aurreko urteetako ohiturari jarraituz, Tourreko garailaren laudorik ez gitea. Alberto Contadorrek bai baitu azpimarratzea mezezi duen gertaerarik eta gorapatzeko moduko bertuterik, baina etorkizunak emango digu horretarako abagunca. Seguru. Gauza bera egin nezakeen Michael Rasmussenekin ere, gauzak ondo, Tourreko garaila behar zuenarekin. Baina, gauzak ez daude ondo ziklismoan. Hori, esan gabe doa, eta ezinbestean kalcan eta tropelcan dabilen kontuari heltzeko eskatu didate, gogo txarrez bada ere: dopinari, hura izan baita aurten ere, zoritxarrez, Torrean gailunduen mamu ustel menderakaitza.

Azken urte eta erdiko positiboen eta dopin aferen etengabeko jauziak ziklismoa espezio egoeran utzi du. Ez dauka sinesgarritasun zipitzik. Ez dago aginpiderik, zatiketa besterik. Ziklistek ez dute inoiz hain estimu gutxi izan, etorkizuna hain ilun. Baina, hala ere, gurpilek jiraka darraite, simaurretan behinik.

Pipihautsa bazter guztietan ageri da. Azken 10 urteetan gutxienez 5 talde desagertu dira oso-osorik dopin aferengatik: Festina, Mapei, Phonak, Kelme eta Tres Molinos. ADR eta ZDF telebista kateek Tourra utzi egin zuten. *France Soir* egunkariak Tourraren heriotza aurreratuta iragarri zuen ziklismoari bizkar eman diola. Cofidis etxeak atzo egitekoa zuen etorkizuna erabakitze bileran (2008an utzi egingo dute, edozein moduz. Credit Agricolek ere bai). T-Mobilek aurki egingo du. Adidas azken talde honekin duen lotura aztertzen ari da. BMC bizikleta egilea Astanari babesa kentzekotan dabil. Alemaniako politikariak Stuttgarteko Munduko Txapelketarako zuten diru laguntza publikoa eman ala ez eztabaidatzen ari dira. Nazioarteko Olinpiar Batzordeak ziklismoa olinpiar jokotatik kanpo uzteko proposamenak jaso ditu. Zenbait manager hurrongo urterako babeslea topatu ezinik dabilza, burua hautsi beharrean. Beste batzuek atzera egin dute dagoen panorama ikusita...

Egoera honen errudunak ez dira ziklistak soilik, iraganeko sistema osoa da, non babesleek, zuzendariak, managerrek, medikuek eta

kazetariek ere erantzukizunik baduten. Bakoitzak berea, denak izan baitira (baikara) arazoaren konplize.

Ematen duenez ordea, ziklismo munduko kide guztiak ez dira oraindik aldatetaren ezinbestekoaz ohartu. Zorriak ilcari nola, hala ere jarraitzen dute lehengo sistemari itsatsita, bistan denez (hor daude positiboak). Baina, ondorioak askoz larriagoak dira egun. Garai bateko positiboek ziklista bera zigortzen zuten. Gaur egungo kolektibo osoa, hor dago kokka. Desberdintasuna.

Horrenbestez, egoera honek ez du erdibiderik onartzen. Zer eskatu behar du ziklismoak sinesgarritasuna erabat galdu badu? Orain, egoera den bezalakoa delako, edo-

zein kontrol sistema onartu beharrean dago sinesgarritasuna bormatzeko (kontrol sistema azpimarratu nahi dut, ez edozer gauza), eta bide horretan ez dago epelkeritarako lekurik. Bostela, betiko aitzakia funtsik gabekoan aterpean babestuko ginatke. Iruzurri zirikituatza utziko genioke, Eztabaidatu daiteke lasterketaz kanpo kontrolak legezkoak diren ala ez, norberaren pribatasunean sartzen diren ala ez. Baina neurri hori arintzen bada, beste nonbaitetik gogortu beharko da eraginkortasunaren izenean. Akaso zigorreratik. Ziklista batzuek bizi guztirako zigorrak eskatu dituzte positibo kasuetan (Tom Boonen). Zuzendariek ere bai (Joxan Fernandez Matxin, Saunier Duvalekoa). Politika-

riek, zer esanik ez (Dick Pound, AMAko burua). Zer ez dakit, baina zirt edo zart egin behar da. Aurrera edo atzera. Gibelera ez dago egite-rik, egungo egoeraren sorburua han dago eta. Garai bateko arauak ez errespaltzeak ckarri gaitu hona. Beraz, aitzinera egin beharra dago, nola edo hala. Ziklista gazteak hobeto hezita, arauak alde zorli-licn artean adostuta, kontrolak zorrotzuta eta zigorrak gogortuta.

ALDAKETA, GERTU. Aldaketa sumatzen da, edozein moduz. Ziklista askok legea ehuneko ehunetan betetzeko erabaki tinkoa hartu dute. Ez guztiek oraindik, eta inoiz ez dute denek bat egingo, baina portzentaje hori igotzen den neurri berean hobetuko da ziklismoaren sinesgarritasuna. Zuzendarien edo managerren erabakiak ere hor daude, Rabobankena adibide. Rasmussenek ez du positiborik eman, eta inoiz ez dugu jakingo debeka-


tutako substantziarik hartu duen ala ez, hain zuzen hori atzemateko ustekabeko bi kontrol saihestu zitu-ela. Baina beste probarik ez-ean, ezekoa pentsatu behar dugu. Hala ere, gezurretan aritu zitezaien bere taldeari eta UCIn, eta jokabi-de hori biziki salagarria iruditzen zait egungo egoeran. Batez ere bar-ne kode etikoa hautsi duela, eta bestetik, zalantza eta susmo txarra baino jaurtitzen ez duela. Bi-degabea izango da susmo hutsaga-tik inor etxera bidaltzea, ados, (hala ere, ez dute horregatik bidali, arauagatik baizik), baina jo deza-gun Rasmussenek lasterketaz kanpo egindako azpikokoren bat-entatik gero karreraren positibo ematea (gertatzen ari den mo-duan) eta haren ondorioz taldea desagertzea. Zer hori baino kalte handiagorik? Inongo errurik ez duteen kideen ogibidea arriskuan jartzea? Haiekin ez al dugu erruki-tu behar? Orain, haiek dira bikti-ma.

Ez dakit Rasmussen bidaltzearen erabakia taldeak hartu duen edo presioek eragin duten, baina mezua garbia izan da: iruzurgileek ez dute lekurik ziklismoan.

Kontrol sistema, beraz, eragin-korra da. Inoiz ez da izango ehun-eko ehunetan fidagarria, baina iru-zurra egiteko aukerak gero eta txi-kiagoak dira, behia horren kontra UCIn, antolatzaileen eta taldeen arautegiak eta gizar tearen presioa baitago. Lehen ez bezala gainera, erabakiak azken muturreraino eramaten dira.

Hori guztia esanda, eta parado-xikoa da, baina aurtengo Tourra, egungo ziklismoa, iraganekoa baino garbiagoa da. Sendatzen ari den zauriak zorneta jarriatzen du erabat osatu aurretik, eta ziklismoak positiboak jaurtitzen ditu garbitzen ari den seinale. Arestian esan bezala, kontrol sistema eraginkorra da, baina hori baino esanguratsuagoa da ziklisten mentalitatea aldatzen ariteza. Ideia berrietan dago etorkizunaren giltzarria, baina denbora behar da. Ziklistek (kirolariek) kirolaren sustarrietatik izan dute dopatzeko joera eta 100 urte pasa-txoko ohitura ezin da urtebetean aldatu. Gainera, ziklismoari erab-ateko gardentasuna eskalzen zaio, orbanik txikiena ere ez zaio onartzen eta hori ez da zuzena. Ziklismoa aitzindaria eta eredu-garria da dopinaren kontrako lehian. Hori harrotasunez esan behar da.

Gizakiaren handinahi mespre-zagarria da dopinaren eta gizarte-ak bizi dituen beste hamaika gai-tzen iturburua, baina gizakia bera da irtenbidea ere. Hurkoarengan konfiantzarik ez dugun munduan bizitzek beldura eragiten dit, eta gizakiarengan dudan fede apurra-gatik, beste ezergatik ez bada ere, itxaropentsu naiz.



Rabobaneko mekaniko bat, burumakur, joan zen ostegunean, Rasmussenek Tourra utzi ondorengo egunean. (IKELA MANDU/11)

OHARRA: Testu hau, Iban Mayren positiboaren berri jakitza baino lehen idatzi dago.



Astana taldeko langile bat, iazko uztailaren 24an, Aleksandr Vinokurovek positibo eman ostean Kazakhstango taldeak Tourra utzi zuen egunean. CHMP/WORTH/ITF

Matxinatzeko garaia da



analisisa
XABIER USABIAGA

Orain hiru urte Pro Tourra sortu zenetik UCIk purrusta eta irainak beste-rik ez ditu jaso. Alde guztietatik egurtu dute, kasu askotan bidegabeki. Eginkizun horretan *L'Equipe* eta *La Gazzetta dello Sport* kirol egunkariak aritu dira batez ere, ASO eta RCS, besteak beste Tourra eta Giroa antolatzen duten enpresen bozgorailuak alegia. Haizeak orbela nola, hala zabaldu dute Pro Tourraren kontrako iritzia korrontea. Askotan, gainera, ziklisten eta talde zuzendari batzuen laguntza izan dute.

Dopin kontrol zorrotzgiak jartzea, garestiegia eta formula itxia izatea, eta beste hamaika aitzakia jarrita lurperatu nahi izan dute batez ere antolatzaileek. Pro Tourraren oinarrietako bat ziklismoak sortzen duen aberastasunaren banaketa arrazionalagoa izanik, haiek baitira kaltetuenak egitasmo honetkin.

Errealitateak erakutsi, ordea, ona edo txarra, oraingoz sistema horiek ez dagoela ziklismoa ku-

deatzeko, Pro Tourra ez dela esan den bezain okerra, behar bada.

Dopin kontrolen kontuan, azken urteotako istilu amaigabeek frogatu dute borroka horretan hartutako neurri oro gutxi izan dela gizakiaren iruzurrerako joera gaitzesgarria ebakitzeke, eta aurreko arategiak behar bezala errespetatu ez direlako egin dela ezinbesteko pasaporte biologikoa eta ADAMS sistema. Orain, ziklista askok (Paolo Bettini Munduko Txapeldunak, esaterako) txalotu egin dute neurri hori, euren sinesgarritasuna bermatuko duela esanda.

Giroak eta Tourrak hartutako azken erabaki onartezinek in talde batzuk (bederatzi) oharu dira Pro Tourraren irabazitako eskubideak bat-batean zapaldu egin dizkietela antolatzaileek, erabateko ukazioa izango dutela aurre egiten ez bazaie. Ziklisten nazioarteko elkargoak ere gaitzelsi egin du antolatzaileen erabakia. UCIk, bere txarrean nahi bada, ziklismoaren ikuspegi orokorra baitauka, globalizatzailea eta aurrerakoia. Ezartzen duen arategia denentzat bera da, objektiboa. Eta Tourra, Giroa edota Vuelta antolatzen dituzten enpresek justu kontrakoa egiten dute. Enpresa ikuspegi gordina dute bihotz, irabaziak arnasa. Batek aurrera egin duen apurra desegin nahi dute beste hiruak.

Pro Tourrak talde egitura sendoagoak sortu ditu eta euren arte-

ko loturak estutzeko ahaleginetan ari da. Egun baino babesle aberatsagorik ez da inoiz izan ziklismoan, asko multinazionalak dira. Pro Tourrak eskubide juridiko eta administratiboak bermatu dizkie ziklistei. Soldatak egunean eta oso-rik kobratzen dituzte, eta hori oso oinarritzko eskubidea izan arren, garai batean ez zen hala izaten, eta egun ere ez Pro Tourretik kanpo

UCIk, bere txarrean nahi bada, ziklismoaren ikuspegi orokorra dauka, globalizatzailea eta aurrerakoia. Ezartzen duen arategia denentzat bera da, objektiboa. Eta Tourra, Giroa edota Vuelta antolatzen dituzten enpresek justu kontrakoa egiten dute. Enpresa ikuspegi gordina dute bihotz, irabaziak arnasa.

kasu askotan. Pro Tourrak inoiz baino gardenago bihurtu du kirol hau, beste behin neurri aintzindariak indarrean jarritz.

Antolatzaileak, aldiz, batez ere Tourra, era guztietako trikimal-luak erabiltzen ari dira hori guztia deuseztatzeke. Ziklismoarentzat kaltegarria den jokabide ankerra ezarri nahi dute, desegituraketa eta atzerapausoa eragingo duena. Ziklismoa hondatzen ari dira berekoi jokatu, soilik euren patrikari erreparatuz. Iaz hiru itzuli handietako batek berak ere ez zuten Unibet taldea gonbidatu. Pro Tourreko taldea zen, eskubidea zuen hartarako, baina baztertu egin zuten. Unibet oso enpresa handia da, aberatsa, eta urteetan iraungo zuen ziklismoan. Iazko erabaki gubidagabearen ondotik, erretiratu egin da, Astanak bide bera darabara, ez litzateke harriztekoa babeslea go-gaitu eta ziklismotik erretiratzeara. Zuhaitzari adarrak ederrenak mozte da hori, ziklismoak horrelako babesleak behar ditu, eta egitura sendoak. Egungo ziklismoa ezin da talde apaletatik bizi, ezin dutelako soldata dunik oraindu, lan postu ziurrik bermatu. Haiek beste eginkizun batzuk dituzte, harrobiarena, afizionatu eta Pro Tourraren arteko zubiak eraikitzea.

Ordea, Tourrak ez du egitura sendorik nahi, eta ezta haien arteko elkarlanik ere. Txiki askok handi bakar batek adina edo are indar gehiago pilotatu baitezakete. Tourrak ez du nahi irabazi handiak ematen dizkion egitura zaharkitu eta desorekatua berri-zerik. Tourrak bere menera izan-

go dituen taldeak nahi ditu, agintean gonapean gozo egoten den jendea.

Baina Giroak, besteak beste, Astanari eta High Roadi, eta Tourrak Astanari egin diona, berriro diot, onartezina da. Iragan lohitsuia egotzi diete euren probetatik at uzteko, baina iragana arakutzen hasiz gero lohitu ez, simaurtuta dauden kideak topatuko dituzte onartu dituzten talde zuzendari eta ziklisten artean. Baita antolaketan ere, ondo dakiten moduan. Astana eta High Road dira, hain zuzen, CSC eta Slipstream taldearekin batera, dopinaren kontra kontrolik zorrotzenak dituzten taldeak. UCIk eta AMAk jarritako arategiaz gain, Astanak eta CSCk Damsgaard doktore dani-markararen sistema aurrerakoia jarri dute indarrean, eta High Roadek eta Slipstreamek ACE Estatu Batuetako agentziaren sistema. Ez dago garbiago jokatzetik, eta hala ere, iragana aipatuta zigortu nahi dituzte.

Nire ustez, ordea, erabakiaren atzean beste arrazoi bat dago. Agintea norik duen garbi utzi nahi du Tourrak. Giroak hartutako erabakiaren haritik, Pro Tourreko bederatzi talde nahikoa dela esateko elkar tu dira. Tourra berehala hasi da martingalen jokoan. Saunier Duvali ez gonbidatzearen mehatxua egin zion aurrena, eta Astana kalean utzi dute gero. Gonbidatu ala ez, euren arteko ulemena gaiztotzea da kontua, haustura eragitea, taldeen arteko elkarlanari baito beldur Tourrak. Baina burua tentetzeko garaia heldu da, aurrena, errazagoa delako, taldeena, gero ziklistena.

Beste era bateko antolaketa, taldeek eta ziklistek eskubide gehiago dutena eta diru banaketa arrazionalagoa izango den ziklismoa posible da. Pro Tourrak jomuga duena, alegia. 1991n lortu zuten ziklistek Espainian Gizarte Segurantzaz izatea. Aldaketak proposatu zituztenean erotzat jo zuten ziklisten asmoa talde zuzendariak. Prozesuak zekartzan gastuei ezin zieten aurre egin esan zuten, babesleek ez zutela onartuko. Greba mehatxuekin behinik, ziklistek aurrera ateratu zuten egitasmoa, eta gutxienez langilerik xumeenari zegozkion eskubideak lortu zituzten, aurrez ez bezala.

Orain ziklismoak aldaketa sakonagoak behar ditu goi mailan duintasunez irau nahi badu. Festa in aferak eta Unibet kasuak emandako aukerak alferrik galdu zituzten UCIk, taldeek eta ziklistek, azken batean haiek uzten baitute antolatzaileek duten aginpidea, ia erabateko boterea. Tirania hori ezin dute gehiago amettitu.

Ziklismoak bizi duen egoera larri honetan, norberaren interesak utzi eta ziklismoaren mesedetan aritu behar da. Txirindulariek eta taldeek jarri dute euren alea. Antolatzaile nagusiak falta dira, eta hartarako borondaterik ez dute-nez, matxinatzeko garaia da.